

3

Euskara toki garapenean, gonbidatu gabeko protagonista

Eñaut Apaolaza

Ekai Center

enautapao@gmail.com

Sarrera-data: 2014-04-15/Onartze-data: 2014-06-05

Laburpena: Euskal Herrian eta Europan oro har gero eta gehiago hitz egiten da toki garapenez. Ez dago maila politiko zabaletan (autonomietan, erregioetan, Estatutetan) estrategia orokor bat garapen hau bultzatzeko, baina esperientziak pilatzen dira, eta gero eta beharrezkoagoa da nolabaiteko sistematizazio lan bat. Gurea bezalako lurraldeetan (industrializatuak eta konparatiboki aberatsak) garapenaren alderdi kuantitatiboek baino kualitatiboek dute garrantzia, gizarte kohesioarengan eta ekonomia garapenean lagungarri den identitate sorrerarengan eragina dutenek hain zuzen ere. Bestalde alderdi sozio-ekonomikoan euskararen erabilera bultzatzeko egitasmoek une honetan finkatu xamar duten muga gainditzeko bidea ere izan daiteke hau. Ondorengo lerroetan hizkuntzaren berreskurapen prozesuak toki garapenari egin diezaiokeen ekarpenaz jardungo dugu, baita toki garapenak hizkuntza berreskurapenari egin diezaiokeenaz ere. Prozesu hauetan gizarte eragileek bete beharreko funtzioak, eta euskararen berreskurapena bere baitan daraman toki garapenak behar dituen tresnak ere aipatuko dira. • **Hitz-gakoak:** *toki garapena, toki garapen kualitatiboa, enpresa sareak, kohesio soziala, identitate partekatua*

Abstract: More and more is being said about local development in the Basque Country and in Europe in general. On broad political levels (autonomous communities, regions, States) there is no general strategy for promoting this development, but experiences are being accumulated and systematisation work of a kind is becoming increasingly necessary. In territories like ours (industrialised and comparatively wealthy ones) the qualitative aspects of development rather than the quantitative ones are important, to be precise those which exert an influence on social cohesion and on the creation of the identity that is helpful in developing the economy. On the other hand, this could be the way to overcome the fairly consolidated limitation affecting the projects designed to encourage Basque use in the socio-economic aspect right now. In the article, we will be dealing with the contribution that could be made to local development by the language revival process, and also the contribution that local development could make to the revival of the language. We will also be covering the functions that need to be fulfilled by social players in these processes, and the tools needed by local development which incorporates the revival of Basque. • **Key Words:** *local development, qualitative local development, enterprise networks, social cohesion, shared identity*

1. SARRERA ETA KOKAPENA

Krisi galanta bizi dugu, eta amaierarik ez da garbi ikusten. Batean eta bestean enpresak ixten ari dira, eta kopuruei erreparatzen badiegu 80ko hamarkadak emandako langabezia datuak urrun xamar dauden arren (1984an langabezia %25 inguruan zegoen, eta gaur egun %16an dago Hego Euskal Herrian), egoera oso larria da, eta lanaren kantitatean (langabeziaren gorakadan) eta kalitatean (langileen pobretzean) eragiten ari da besteak beste.

Krisi galanta bizi dugu, eta amaierarik ez da garbi ikusten. Euskararen erabilerak ez du goranzko biderik hartzen, espazio funtzional berriak bilatzeko eta lortzeko egundoko ahalegina egiten bada ere, arlo sozio-ekonomikoan duela urte batzuetako loraldia eten egin da, eta lan munduaren euskalduntzea deitu izan dena stand-by egoeran dago, krisiaren erruz neurri batean, baina lan arloarekiko estrategia bera krisian sartu delako baita ere. Euskararen berreskurapen prozesua birpentsatu eta birplanteatu beharra dago beraz, baita esparru sozio-ekonomikoan ere.

Batentzat (garapen ekonomikoarentzat) zein bestearentzat (hizkuntzaren normalizazioarentzat) lagungarria izan daiteke lurraldean jartzea arreta enpresaz enpresa jarri beharrean. Honela bada, toki garapen estrategiek krisi biei erantzun bat emateko aukera dakarte:

- a) Ekonomia beherakadei eusteko eredu bat planteatu dezakeelako batetik, eta
- b) Garapenak lurraldean txertatuta egoteko besteak beste gizarte intereseko faktore kohesionatzaileak behar dituelako bestetik, eta hauen artean hizkuntza kokatzen da noski.

Testuinguru honetan, toki administrazioek zeresan handia dute. Berariai dagokie udalerrri eta eskualde mailako ekonomiaren sustapena. Sustapen honetan gainera ikuspegi eta interes orokorrari erreparatu behar zaio, eta administrazioak izango dira etengabe jarduera ekonomikoa interes horretara bideratuko beharko dutenak.

Egia da enpresa handiek tokiko garapenarekiko harreman gutxiago izan ohi dutela, eta euren interesa interes orokorraren gainetik ezartzeko gaitasun handiagoa dutela, beraien jokaera esparruak eskualdearekin zerikusi gutxi izan ohi baitu. Enpresa txikiek berriz beharrezkoago dute oinarri gisara maila lokala edo eskualde maila, eta tokiko administrazioak lotura hori errazteko bitartekoak jartzeko gauza dira gainera, toki garapenaren zirkulu bertutetsua osatuz honela. Interes orokorrarekiko

Euskararen erabilerak ez du goranzko biderik hartzen, espazio funtzional berriak bilatzeko eta lortzeko egundoko ahalegina egiten bada ere, arlo sozio-ekonomikoan duela urte batzuetako loraldia eten egin da, eta lan munduaren euskalduntzea deitu izan dena stand-by egoeran dago, krisiaren erruz neurri batean, baina lan arloarekiko estrategia bera krisian sartu delako baita ere.

Gurea bezalako industrializatutako herrietan aurrerapen soziala eta garapen ekonomiko eta industrialia guztiz lotuta daude.

eta kohesio sozialarekiko sentiberatasun handiagoa izan dezakete modu berean. Horrez gain jabetza sustraitua dutenez (kanpo akziodunik apenas), krisi egoeretan eusteko gaitasun handiagoa izan ohi dute garapen iraunkorrago bat eskainiz.

Ondorengo lerroetan toki garapenak hizkuntzarekin, eta zehazki esanda, euskararen berreskurapen funtzionalarekin eta erabilera area-gotzearekin izan dezakeen loturaz jardungo dugu.

2. TOKI GARAPENAZ ZERTZELADA BATZUK

Garapen ekonomikoaz arduratzen diren politikak apenas arduratu dira toki garapenaz orain arte, eta arduratu direnetan berriz sakontasun gutxiz egin dute. Politika ekonomikoak estatu mailatik garatu izan dira, baina duela hamarkada batetik erregioek arreta handiagoa jarri dute. Hala eta guztiz, esperientzien berri jaso bada ere, zientifikoki asko dago egiteko toki garapenaren ezagutzaz teorizatu eta jarraibideak ezartzeko orduan. Dena dela argi dago tokiko garapen estrategiak oso garrantzitsuak direla epe luzerako garapen estrategietan derrigorrak diren esparruetan: balioetan, motibazioan, berrikuntzan, prestakuntza teknologikoan, azpiegiturretan... eta noski, lurraldean sustraitzean.

Ekonomiaz ari garenean, gainerako zientzia sozialetan bezala, zenbat eta esparru txikiagora jo, orduan eta berezitasun handiagoak topatuko ditugu. Estrategiak eta helburuak beraz ezberdinak izango dira udalerri-eskualde batean ala bestean, duen egitura sozialaren arabera, dagoen kualifikazio mailaren arabera, formazio eta trebakuntzarako aukeren arabera, egitura ekonomikoaren arabera, hizkuntzen arteko harremanen arabera, sentiberatasun ekologikoaren arabera eta abar.

Ezaugarri horien arabera eragile sozial zein ekonomikoen arteko lotura sendoagoa edo ahulagoa izango da, baina lotura horiek (zenbat eta trinkoagoa hobe) behar-beharrezkoak dira berrikuntzan oinarritutako lurralde garapen politiketan, berrikuntza kontaktu horretatik sortzen da eta. Lotura hauek udal-eskualde mailan bereziak dira, eta herrialde edo nazio mailan aintzatestea zailagoak diren faktoreak halabeharrez aintzat hartu behar dira maila honetan. Hauen artean zalantzarik gabe faktore kulturalak eta linguistikoak kokatzen dira (edo koka daitezke).

Garapen kualitatiboa

Garapen ekonomikoak, baita tokikoak ere, sarritan kalteak sortzen ditu ingurumenean edo gizarte kohesioan (ezberdintasunak handituz esate baterako). Gizartea gainera sentibera izaten da horrelakoekiko, eta lo-

gikoa da gainera, garapen desordenatuaren atzeak (ekologian, egoera soziolinguistikoetan, ezberdintasun sozialean izan duen eragina...) erakusten baitio aurreari nola dantzatu. XX mendeko azken hamarkadetan erresistentzia soziala garatu da gizartea alde batera uzten duen eta bere buruarengan kontzentratutako garapen ereduaren aurka, dituen ondorio kaltegarriengatik batez ere. Ondorioz garapena bera ere begi txarrez ikustea ekarri izan dute hainbat praktika kaltegarrik. Erresistentzia horiekiko erne, garapenak sortutako desoreka horiek garapen kualitati-boaren bidetik gainditu nahi dira. Hau da, garapen teknologikoan, heziketan, berrikuntzan, eta ondorioz eskualde bateko balore eta faktore kultural positiboak zainduz garatu nahi da.

Gurea bezalako herrietan izateko arrazoi nabarmena du garapen mota honek. Garapen ekonomikoaren beste etapa batzuetan dauden herrialdeek garapen exogenoa eta kuantitatiboa bilatuko dute, baina gurean etapa hori pasatu zen, eta bertako bitartekoak erabiltzea logikoagoa da, baita bertako balore positiboak erabiltzea garapenaren etapa berri bat gauzatzeko. Hau da, gurea bezalako industrializatutako herrietan aurre-rapen soziala eta garapen ekonomiko eta industrialak guztiz lotuta daude.

Toki garapena eta balioak

Azkenik, lehen hurbilpen honetarako azken zertzelada bat ere eman nahi dugu balioen inguruan. Gutxietsi egiten den alderdi bat da balioen kudeaketa, eta ez luke horrela izan behar. Eskualde bateko balioek eragina dute toki ekonomiaren garapenarengan, eta toki ekonomiak eragina du halaber lurralde bateko baloreengan.

Adibide batzuen bidez hobe uler daiteke egin berri dugun baieztapena: enpresa handiak dauden eskualdeetako biztanleek ekimena eta sozio-ekonomiaren ezagutzarekiko jarrera pasiboagoa dute. Ingurune kooperati-boetan berriz ardura ekonomiko handiagoa dago, eta problematika zeha-tzen inguruan gehiago interesatzeko eta ekimen handiagoa gauzatzeko joera, enpresa txiki eta autonomo asko dauden lekuetan ekonomiaren eza-gutza handiagoa izan ohi da. Eta zalantzarik ez, horrek ere eragin handia izaten du gizartearen beste hainbat arloetan, zeharka bada ere.

3. ENPRESA SAREAK ETA EUSKARAREN ERABILERA PLANEN BULTZADA INSTITUZIONALA

I
Eragileen arteko loturak berrikuntzan eta garapenean pisua baduela, eta ez txikia, esan dugu aurreko puntuan. Lotura hauen emaitza dira ezagutza sareak eta enpresen taldekatzeak. Elkartzeko eta sareak osa-

Elkartzeko eta sareak osatzeko arrazoi nagusiak zuzeneko edo zeharkako etekinen bat, errentagarritasun hobe bat edukitzea da.

**Minorizazio
prozesuan
galtzen den lehen
esparruetako bat
izaten da sozio-
ekonomiarena.**

**Ez dago bultzada
politikorik
borondate hori
gauzatu nahi
duten enpresez
kanpokoak
normalizazioaren
bidera
erakartzeko.**

tzeko arrazoi nagusia zuzeneko edo zeharkako etekin bat, errenta-garritasun hobe bat edukitzea da. Etekin hau batzuetan epe luzeakoa da, eta enpresen denbora proiektzioa laburragoa izan ohi denez (lauz-pabost urte asko jota), arlo publikotik bultzatu behar izaten dira interes orokorraren izenean.

Aipatu dugu halaber esparru sozio ekonomikoak, lan ordainduak berak, eta lurralde bateko enpresa konfigurazioak lurralde horretako gizar-tearengan duen eragina oso handia dela. Hizkuntza minorizatuen arlotik oso ondo ezagutzen den zerbait da hau guztiau, izan ere minorizazio prozesuan galtzen den lehen esparruetako bat izaten baita sozio-ekonomiarena (arlo publikoaren ondoren agian lehena). Baina behin esparru sozio-ekonomikoan bizi indarra galduz gero, esparru publikoa bera baino iheskorragoa da hizkuntza gutxituarentzat, izan ere administrazioan eragina izan dezakeen ofizialtasunaren onarpenak, sarbide mugatua baitu enpresa arloan, ez bada kontsumoarekin zerikusia duten gaietan eta produktuetan.

Gauzak honela bultzada politikoa oso garrantzitsua da esparru hori (ber)eskuratzeko, eta Euskal Autonomi Erkidegoan hoge urterantz doa bultzada hori, bai Foru Aldundietatik, bai Jaurlaritzatik baita hainbat udaletatik ere.

Zoritxarrez berezko ahulezia du babes honek, diru-laguntzetara mugatzen baita ia soilik. Ez dago ia bestelako politika esanguratsurik euskara lan munduan normal egiten lagunduko duenik. Horren ondorio nabarmenetakoa etortzeko dago oraindik, diru-laguntzak jaitsi ahala (azken urte honetan nabarmen gertatu den bezala), euskara planen hedadura kuantitatiboa kaltetu baitaiteke, baita esfortzua egiten jarraituko duten enpresen ahalegina ere.

Hasiera batean diru-laguntza zuzen hutsak logika izan dezake, administrazioaren borondateak enpresa barruko eragile ezberdinen arteko kontsentsua lortzen lagundu baitezake. Hau da, enpresaren baitan eragile bakoitzak (sindikatu, enpresa jabe, administrari, zuzendari eta abarrek) oso jarrera ezberdina eduki dezakete euskalduntze prozesuekiko, aldekoenetik jarrera pasibo oztopatzaileetara (aurkako garbiak topatzea zailagoa da). Jaurlaritzak edo beste edozein administrazioak begi onez ikusten dituela, eta diruz laguntzen dituela adierazi ahal izateak –diru laguntzak medio- asko lagundu dezake jarrera oztopatzaile hauek motteltzen.

Denbora aurrera joan ahala dena den beste mota bateko politikak beharrezkoak egiten dira. Euskararen erabilera sustatzeko egitasmoak enpresetan gestionatzeko alderdi bihurtu ahala, gestio bitartekoetara

eta hizkuntzara moldatu egingo dira. Sustapen politikek ere alderdi hauek kontutan hartu behar dituzte.

Horretaz jakitun, Eusko Jaurlaritzak Hizkuntza Politikako Sailbu-ruordetzaren bidez Lanhitza programa abian jarri zuen. Programa horrek urtero euskararen erabilera sustatzeko egitasmoak diruz laguntzen ditu. Diru laguntza hauen bilakaera hazkorra izan zen lehen urteetan, 2009 urtera arte hain zuzen (2.600.000 euro). Gerora, 2011ra arte 200.000 euro gutxiago bideratu ziren, eta 2012 eta 2013an %25 baino gehiago gutxitu da kopuru hori.

Diru-laguntza hauek dira bestalde euskararen erabilera sustatzeko ahalegina egiten duten enpresen zerrenda egiteko modu ia bakarra, ez baitago bestelako erregistrorik. Beste era batera esanda, enpresa hauek dira, hezkuntzakoez, euskal hedabideetakoez, administrazio batzuek, hizkuntza aholkularitza helburua dutenez eta euskal oinarriko edo oso oinarri lokaleko beste apur batzuek aparte hizkuntzaren normalizazioan dihardutenak.

Aurrekoari guztiari gehitu behar diogu une honetara arteko politikek enpresen beraien borondatea dutela abiapuntu. Hau da, nahi duenari diruz lagundu batez ere bi gauzarako: normalizazio helburuen dinamizazioarako, eta laneko tresnen euskalduntzearen kostua ordaintzeko. Baina ez dago bultzada politikorik borondate hori gauzatu nahi duten enpresez kanpokoak normalizazioaren bidera erakartzeko.

Sozio-ekonomiaren arloan eragin normalizatzailea edukitzekotan normalizazioan diharduen enpresa kopuruak hazkorra izan beharko luke. Datuei erreparatuz gero ordea enpresa kopurua gelditu egin da 160-180 tartearen inguruan:

1 Taula. Dirulaguntza jaso dutenen enpresa kopurua (2008-2013)

Urtea	Enpresa kopurua
2008	157
2009	164
2010	164
2011	155
2012	163
2013	181

EME bera ez da aldatu sortu zenez geroztik, eta ez du enpresa bilakaeran, eta ondorioz, enpresa antolaketa, jarduera komertzial, produkzio, produktu eta abarretan eboluziorako ezinbesteko diren zenbait alderdi kontutan hartzen. Batez ere enpresen arteko interakzioa.

**EME enpresaren
jardueraren
deskribapen bat
da, baina sozio-
ekonomian
euskararen
presentzian
efektu
biderkatzailea
bilatzeko ez du
balio oraindik
orain.**

Hau ulertzeko gako batzuk ematen hastekotan, beharrezkoa iruditzen zaigu lehenik Lanhitz programari berari erreparatzea. Diru laguntza zuzenak ematen dira normalizazio helburu zehatzak jartzeagatik Erreferentzia Marko Estandarraren (EME) arabera, eta ekintza plan modura antolatuta¹. Beraz, euskararen normalizazioan interesa duten enpresek EMEx ezarritako txantilo baten arabera antolatu behar dituzte beren euskara planak.

EMEx hiru ardatz ezartzen ditu:

- Erakundearen irudia eta komunikazioa
- Kanpo harremanak
- Barne harremanak

Beste antolaketa batzuk ere posible baldin badira ere, EME oso egokia izan daiteke normalizazioaren jarduna planifikatzeko. Baina EME bera ez da aldatu sortu zenez geroztik, eta ez du enpresa bilakaeran, eta ondorioz, enpresa antolaketa, jarduera komertzial, produkzio, produktu eta abarretan eboluziorako ezinbesteko diren zenbait alderdi kontutan hartzen. Zer ez du kontutan hartzen? Batez ere enpresen arteko interakzioa. Euskara planetan jardun duten eta euskalgintzan zeresana duten enpresen arteko harremanak izango dira lan arloari bultzada emango diotenak.

Azkar eta agian zorrotzegi esanda, EME enpresaren jardueraren deskribapen bat da, baina sozio-ekonomian euskararen presentzian efektu biderkatzailea bilatzeko ez du balio oraindik orain.

Garapen soziala eta ekonomikoa eragile sozio-ekonomikoen elkar-guneak, ezagutza sareak finean, sortuz gauzatu izan da. Ezagutza sare horiek euskararen normalizaziori bagagotziko, EMExen eta Lanhitzen gerizaz kanpo egin dira, eta enpresen beraien beharrek bultzatuta eskualde mailako sareak osatzera jo dute. Aipatzeko modukoa da baita ere Soziolinguistika Klusterrak bultzatu duen Eralan egitasmoa. Lehenak, eskualde sareak alegia, ezagutza orokorra partekatzeko sortu dira, eta egitasmo bateratuak sortzeko aukera eman dute. Bigarrenak berriz, Eralanek, euskara enpresa munduan hedatzea baino, dagoeneko euskara plana duten enpresei hobekuntza eta eraginkortasun metodologikoa emateko ahalegina egin du.

Beraz berrikuntza metodologiko hauek, edo enpresa barruko jarduera esparru berri hauek ez datoz neurri politikoetatik², ekimen pribatutik baizik. Zalantzarik ez dugu Lanhitzek berak ere bultzatu egin beharko lituzkeela elkartune hauek. Esparru publikotik, bai erkidego

mailakotik, baina baita Aldundietatik, eta zer esanik ez mankomunitate zein udal esparrutik euskara planen berrikuntza metodologikoraoko eta jarduera berri eta indartsuagoetarako beharrezkoak dira eta bilguneok. Horrez gain ez dugu ahaztu behar lehenago berrikuntzaz eta garapenez esan bezala, eragileen interakzioak ekarriko duelako euskara planek orain finkatu antzera duten atalase horretatik (160 enpresa inguru) igotzea eta garatzea efektu biderkatzailea lortze aldera.

Euskara esparru sozio-ekonomikoan; ezagutza sareak

Nola antolatu elkargune horiek? Une honetan euskararen normalizazioan ardura duten enpresen elkargune horiek bi ardatzen arabera dira:

- Eskualde oinarriko elkarguneak, eskualde mahai tankerakoak
- Enpresa multzoen mahaiak

Mahai hauek, enpresen eta administrazioen ikuspegitik estrategikoak diren beste gai batzuk ez bezala (harreman komertzialak, produktu osagarritasuna, ikerketa, segurtasuna, nazioartekotzea...) iraunkortasunik eta dedikaziorik ez dute maiztasun jakin bateko bilerez gain. Beren garrantzia alde batera utzi gabe, eta beren lanari onarpen eta airtortza osoa eginaz, ez dira pentsaera estrategikoa lantzeko gune egokia. Izatez, euskararen enpresa munduko bilakaera estrategikoa inon izatekotan enpresa bakoitzean lantzen da, eta apenas partekatzen da ezer. Ez da partekatzen ez informazioa 'gorde' egiten delako, baizik eta partekatze horretarako bitartekorik ez dagoelako. Enpresa bakoitza bere beharrei begira jartzen da ondorioz, eta enpresa jakin batean baino urrunagoko begirada falta da, alegia, lurralde lotura osatzea falta da.

Hori enpresa aktibitatearen beste hainbat esparrutan ere gerta daiteke, baina politika publikoak ikuspegi orokorra ekartzeko pentsatuta daude –edo egon beharko lukete-, eta enpresen baitan dagoen ezagutza normalizatzaile hori partekatzeko eta garatzeko modua egiteaz arduratu beharko lirateke.

Bestalde, mahaion osieran eta bultzadan agente publikoen beharra azpimarratu ondoren, beharrezkoa da baita ere arlo sozio-ekonomikoaz ari garenean, arlo honen garapenean zerikusituzena duten eragile guztiak aintzat hartzea, maiztxo alde batera geratzen baitira sindikatuak, eskola profesionalak, eta agian baita hizkuntzari dagokionean garapen agentziak berak, salbuespenak salbuespen.

Laburbilduz, garapen ekonomikoan hain funtsezko izan den enpresen arteko elkarguneak sortzea, ezagutza sareak eratzea, eta horretan

Garapen ekonomikoan hain funtsezko izan den enpresen arteko elkarguneak sortzea, ezagutza sareak eratzea, eta horretan izan den gidaritza publikoa euskara planen arloan ere gauzatzea beharrezkoa da.

Garapen hau ez da garapen ekonomiko hutsa, garapen soziala ere bada, eta osagarri sozial honetan gizarte batentzat indar kohesionatzailea duten elementuak aintzat hartu behar dira, euskararen normalizazioa besteak beste.

izan den gidaritza publikoa euskara planen arloan ere gauzatzea beharrezkoa da, eta elkargune hauen osaera, antolatze modu, helburu, azpiegitura eta abarri buruz hitz egiten hasteko behar gorria dago.

4. HIZKUNTZAREN NORMALIZAZIOA TOKI GARAPENEAN

I
Gurea bezalako lurralde batean garapenaz hitz egiterakoan, eta zehazki, toki garapenaz hitz egiterakoan, garapen kuantitatiboa baino garapen kualitatiboa hartu behar da aintzat batez ere. Garapen hau, lehenago ere azaldu bezala, ez da garapen ekonomiko hutsa, garapen soziala ere bada, eta osagarri sozial honetan gizarte batentzat indar kohesionatzailea duten elementuak aintzat hartu behar dira, hizkuntza besteak beste, euskararen normalizazioa besteak beste.

Zein da hizkuntzaren, eta gure kasuan, euskararen lekua toki garapenean? Toki garapenak sustatzen duen bertatik sortutako enpresa eredu urrun dago garai batean gure garapenaren ezaugarri izan zen altxairuaren eta burdinaren inguruan sortutako industria astunaren nagusitasunetik. Enpresa handi hauek gaitasuna zuten herri baten bizitzaren goitik behera baldintzatzeko. Garapen ekonomikorako funtsezkoa zen ekarpena bazen ere, nolabaiteko gizarte desegituratze bat ere bazekarren, izan ere desberdintasunen areagotzea, eta osasunarengan zein ekologiarengan eragin negatiboa ekarri ohi zuen. Horrez gain gainera botere politikoaren funtzioa den interes orokorraren alde jardutea baldintzatzeko baitzuen.

80ko hamarkadatik aurrerako industria handi honen beherakadak gure enpresa ehunduran eragin handia izan zuen, eta geroztik enpresa txikiagoek hartu dute lehen hain handiak ziren lantegien lekua. Enpresa txikiago hauek errotze handiagoa dute, eta garapen kualitatiborako gaitasun handiagoa eskaintzen dute.

Gorago esan bezala, garapen estrategia kualitatiboetan inportantzia handia daukate ezagutza sareek, sektoreen arteko osagarritasuna bai eskualde berean baita gertuko eskualdeen artean bilatzeak, langileen trebakuntzak, eta teknologia aurrerapenak besteak beste. Aldi berean lehenago ere esan dugun bezala izaera sozio-ekonomikoko helburuez gain, ezinbestekoak dira eskualde bateko (edo herri handi bateko) ekonomia gestionatzerakoan faktore historikoak kontutan hartzea, baita psikologikoak ere, behintzat toki garapenari dimentsio kualitatiboa eman nahi bazaio. Hain zuzen ere, komunitate kontzientzia izatea eta balio batzuek eta interes batzuek partekatzearen jakitun izatea gako

nagusietako bat da herritarren, instituzioen eta eragile sozio-ekonomikoen motibaziorako.

Hizkuntza, edo zehatzago esateko, euskararen normalizazioa hemen kokatzen da, edo behintzat, hemen koka daiteke, komunitate kontzientzia horretan funtsezko elementu modura, eta bi bidetatik egin dezake gainera:

- Hizkuntza bera partekatzeak sortzen dituen lotura psikologikoak eta sozialak
- Hizkuntzaren berreskurapenean jarduteak, hau da, proiektu konpartitu batean jarduteak sortzen duen lotura psikologikoa eta soziala

Honela bada, toki garapenean ikuspegitik euskararen normalizazioa enpresa munduan fokatzeak ekarpena egingo dio garapenari berari komunitate zentzu sortzaile delako, eta zentzu hau toki garapen estrategietarako osagai funtsezkoa delako, hau da, toki eragile publiko zein pribatuak eta herritarrak elkartzeko balioko duelako.

Euskararen normalizazio prozesua enpresetan behar besteko eraginkortasunez gauza dadin esplizitu egin behar da gizartearen aurrean. Gaur egun ezin daiteke esan normalizazio prozesu hauek indar egituratzailea dutenik eskualdeetan, edo lekuren batzuetan baldin badute ere, izan dezaketena baino arrunt txikiagoa da. Izan ere euskararen erabilera enpresetan handitzeko egitasmoek transzendentzi sozial txikia dute, ziurrenera horretan diharduten enpresek (nahiz bezero, nahiz hizkuntza aholkularitza) operatiboki (ez estrategikoki) beren barne gai modura ikusten dutelako, eta ez diete ematen garrantzirik gizartearengan izan dezakeen eraginaren ikuspegitik.

Lan produktiboaren inguruko euskararen erabilera planek, kontsumora edo hezkuntzara bideratutako enpresen kasuan izan ezik, barne harremani eta barneko lan erremintei erreparatu diete batez ere. Horrek nolabaiteko barnerako begirada ia eksklusibo batera mugatu ditu euskara plan hauek, eta ondorioz, ez da eragin kutsatzailerik lortu. Ez da gizarte ikuspegi estrategikorik gauzatu. Lan arloan berean ere balio kateen inguruko 'kutsadurarik' ez da bilatu enpresen artean, nahiz eskualde mailako bilguneak egon. Eta honek badu bere garrantzia, izan ere sozio-ekonomian ezagutzaren transmisioa eta sorkuntza balio kateen baitan gertatzen baita neurri handi batean. Hori dela-eta du toki garapenean ikuspegitik halako garrantzia eskualde bateko balio katea zein den eza-gutzeak.

Komunitate kontzientzia izatea eta balio batzuek eta interes batzuek partekatzearen jakitun izatea gako nagusietako bat da herritarren, instituzioen eta eragile sozio-ekonomikoen motibaziorako.

**Nolabaiteko
barnerako
begirada ia
esklusibo batera
mugatu ditu
euskara plan
hauek, eta
ondorioz, ez da
eragin
kutsatzailerik
lortu. Ez da
gizarte ikuspegi
estrategikorik
gauzatu.**

Euskara planak eta toki garapenerako politikak

Euskararen erabilera planak esparru sozioekonomikoan azken hamar-kadan izan duen emaitzarekin sentsazio bikoitza eduki daiteke. Alde batetik argi dago egiten den ahaleginak fruituak ematen dituela, eta euskarak espazio berriak (berez zailenetakoa eta gizarte pisu handienetakoa duena) eskuratu ditzakeela. Baina bestalde, eta esan bezala, kopuru aldetik eduki dezakeen pisuaren aldean, baita eskualde euskaldunenetan ere, salbuespenak salbuespen (batik bat Debagoiena eta Lea-Artibai), ez du hedapen orokorrik lortu. Eta hori gairaditzeko, enpresen euskalduntzea toki garapen kontzeptuari lotu behar zaiolakoan gaude, bai behintzat eskualderik euskaldunetan, eta hauen artean beraz Gipuzkoa osoan.

Hori horrela, botere publikoen zeregina izan daiteke laguntza zuzenei eusteaz eta ahal den neurrian zabaltzeaz gain (agian kopuru handitze hau euskara planen kopurua handitzea lortu ahala gauza daiteke), bultzada politikoa ematea honelako prozesuei nabarmentze soziala sustatuz. Horrelakorik egon ezean, egitasmo hauek dituzten enpresek beraiek hasi beharko lukete ibilbide hori.

Zer esan nahi dugu? Egiaz, diru laguntza zuzenen beharrak bere horretan jarraitzen du, baina bere mugen jakitun izan behar dira bai botere publikoak, bai enpresak, bai sindikatuak, eta zer esanik ez baita euskalgintza ere. Ezinbestekoa egiten da pilatutako ezagutza hori guzti hori enpresa planak orokortzearen mesedetan jartzea, eta horretarako beharrezkoa da ezagutza sareei sakonera handiagoa ematea, berauetarako bultzada publikoa egotea, bai leku administrazioetatik, bai foru aldundietatik, bai Jaurlaritzatik ere. Honez gain, toki garapen kualitatibo baten gainerako osagaietan ere normalizazio klabeak presentzia izan beharko du, gainerakoan prozesua atzeratu, motelago berritu, eta biderkatze ahalmen txikiagoa izango du.

Esan bezala, urte hauetan guztietan esperientzia azpimarragarriak eta praktika onak ugariak izan dira. Orain praktika horiek orokortzeko beharra dago, eta toki garapenerako politika bihurtzea. Horretan zeresan handia izango dute foru aldundiek, eskualdeek eta udalek, elkartzeko politika horiek bultzatzea berauei baitagokie toki garapenerako elementu modura. Elkargune hauek oraino enpresek beraiek bultzatu dituzte, eta informazio truke eta ekitaldi bateraturen bat osatzeko balio izan dute batez ere. Egia da bestalde enpresa talde egituratuek sakonera eta zeregin zabalagoak eman dizkietela topagune hauei, baina beti ere taldearen barne beharretan bilatu da indar biderkatzailea, eta ez da inguruko gainerako enpresetara zabaltzeko ahaleginik egin.

Taldekatzea bera —toki garapenez aipatu izan den formatuari jarraituz— eskualdeen arabera edo sektoreen arabera planteatu daiteke. Batak zein besteak aldekoak zein kontrakoak ditu. Badirudi eskualdearen arabera egokiagoa dela toki beharrei hobeto erantzun emateko. Sektorekoak berriz erakarmen indarra bultzatu dezake plan mota hau izan ez arren, euren sektorean bultzada hori gauzatzeko adinako enpresa kopurua baldin badago. Biak uztartzerik balego, ezin hobe, baina eskualde gutxitan gerta daiteke horrelakorik.

Baina enpresa arlorako hizkuntza politikek ez dute soilik diru laguntza zuzenak banatu, transzendentzia soziala areagotu eta elkarguneak bilatzera jo behar. Toki garapenearen osagai bihurtzekotan, kontutan izan beharko da toki oinarriko ekonomiak bultzatzeko beste bideetan ere hizkuntzari lotutako politikek lekua egin behar dutela luze baino lehen, honakoetan besteak beste:

- Langileen trebakuntza euskaraz gauzatu
- Ezagutza partekatzeko mekanismo gehiago ezarri
- Lanbide heziketa arautuan azaldutako klabe hauetan funtzionatu
- Teknologia bultzatu eta horretarako hizkuntza irizpideak ere finkatu
- Berrikuntza teknologikorako eta orokorrerako sareetan txertatu

Toki garapen politiken eta hizkuntza politiken uztartze bat planteatu dugu beraz garapen estrategia baten baitan. Horretarako sozio-ekonomia eragileen arteko elkarguneak bultzatzea planteatu dugu, eta ardura hori botere publikoena beharko lukeela, nahiz eta orain arte bilgune horiek esparru sozio-ekonomiko pribatutik bultzatu diren batez ere.

5. SAREAK ETA EUSKARAREN EKARPENA

I

Toki administrazioen zeresana arlo honetan garrantzitsua da. Hizkuntza normalizazioa onura publikoari lotuta baldin badago, eta ekimen pribatuaren jarduna arlo honetan ez bada nahikoa, botere publikoen esku hartzea ezinbestekoa izaten da, beste hainbat arlotan jarduera ekonomikoak sortzen dituen desdoidzeekin gertatzen den bezala.

Elkargune horren helburua eta zergatiak azaldu behar dira. Euskal Herriko eskualdeetan eratu diren sareak sektorialak izan dira batik bat, eta emaitzak ekoizpenean, arlo teknologikoan, komertzialean eta trebakuntza espezializatuan eman dituzte batez ere. Oinarri kooperatiboko sareek aldiz emaitza instituzionalak, antolakuntzakoak, finantzarioak

Toki garapen politiken eta hizkuntza politiken uztartze bat planteatu dugu beraz garapen estrategia baten baitan. Horretarako sozio-ekonomia eragileen arteko elkarguneak bultzatzea planteatu dugu.

Galdera beraz honakoa da: zergatik ez da sektorekako taldekatzearen inguruko saretzerik izan hizkuntza normalizazioan?

Badirudi euskara planon hautemateak zerikusi handia duela, izan ere enpresan gestionatzeko arloetatik urrun ikusten da normalizazioa, zuzenean balio erantsia ematen ez duen zeregin modura.

eta espezializazio gutxiko trebakuntzan gertatu dira. Azken hauetan barne sareak ere eratu dira hizkuntza normalizazioaren inguruan.

Zein leku du ardatz baten zein bestearen inguruan eratutako sareetan euskararen erabilera areagotzeak? Sare sektorialek printzipioz toki garapenarekin eta efektu biderkatzailearekin lotura handiagoa eta eraginkortasun handiagoa izan dezaketela dirudi. Kasu hauetan bai bezero bai hornitzaileengana iritsiko dira ekoizpen prozesuarekin eta prozesu komertzialekin lotutako sareak diren neurrian, eta harreman mota hauen gaineko azterketek eta helburuek hizkuntza normalizazioa eta planen biderkatzea eduki dezaketen neurrian xedeetako bat. Baina orain arte horrelakorik ez da sortu, izan ere esan bezala eskualde oinarriko taldeak sortu baitira batez ere hizkuntza normalizazioaren inguruan, eta gainera sare hauetan enpresa kooperatiboek pisu handia daukate. Honek dagoeneko aipatu ditugun emaitzak izan ditu, baita bere mugak erakutsi ere. Galdera beraz honakoa da: zergatik ez da sektorekako taldekatzearen inguruko saretzerik izan hizkuntza normalizazioan?

Erantzuna ez da erraza, une honetan bildu ez den informazio bat edukitzea eskatuko bailuke, eta batez ere sektore egitura hauetako partaideen zein enpresetako normalizazio planetan diharduten adituen iritzia jaso beharko lirateke. Baina badirudi euskara planon hautemateak zerikusi handia duela, izan ere enpresan gestionatzeko arloetatik urrun ikusten da normalizazioa, zuzenean balio erantsia ematen ez duen zeregin modura, eta horrek sektore taldekatzean lekurik ez dio uzten, taldekatze hauek hain zuzen ere balio erantsi hori areagotzeko estrategiak zehazten baitituzte.

Hautemate hori aldatzeko euskararen erabilera enpresetan areagotzearen ekarpen ekonomikoa azaleratzea beharrezkoa da. Gipuzkoako Foru Aldundiak eta zenbait udalek kontratazio publikorako ezarri dituzten hizkuntza irizpideak oso lagungarri izan daitezke horretarako, lehiarako abantaila bat ezartzen duten neurrian azaltzen ari garen hizkuntza ikuspegi honetatik prestatuen dauden enpresentzat.

Aurreko puntu eta paragrafoetan esandakoek euskararen identitate zentzua, toki garapenean eta komunitate garapenean hain garrantzitsua dena, gainditu (baina ez baztertu) egiten du, eta saiakera egiten du euskararen erabilerari zentzu praktikoa ematen. Modu honetan euskaraz lan egiteak, kontsumo produktuak zein industrialak eskaintzeak abantaila konkretuak azaldu arazi ditzake, abantaila teorikoak zehaztea eka-rriz. Hartara agerikotasuna lortzen da, bai hizkuntzarena, baita hizkuntzaren berreskurapen prozesuarena ere.

Sortzen den beste zalantza bat espezifikoki hizkuntzaren berreskurapenean dihardutenen sare propio behar den, ala alderantziz, toki ga-

rapenari lotutako sare orokorretan aztertu beharreko gaia den hizkuntza eta esparru sozio-ekonomikoa batzen dituen. Orain arte esandakotik nabaritzen da toki garapen estrategia baten baitan kokatu behar dela euskararen normalizazioa, eta ondorioz, baita erabilera planena ere. Lekuan lekuko ohiturak, antolatze moldeak, sektore industrialak, enpresen tamainak, eta egoera soziolinguistikoak baldintzatuko dute bai estrategia honen edukia baita antolaketa ere. Eskualde bakoitzak duen enpresa tipologiaren arabera egin beharreko aukera izango da hau. Honela, dagoeneko ezagutza sareak antolatuta dituzten eskualdeek sare hori berori aprobetxatzeak dirudi egokiena emaitzak onak izan daitezen.

Bestalde, egitura hauek sortuta eduki ala ez, euskara planen dentsitatea eskualdean aintzat hartzea ere garrantzitsua da. Plan hauek presentzia apala daukaten lekuetan sortuta dauden sareak erabiltzea dirudi egokiena.

Edukiei dagokienez, toki garapen estrategietan txertatzeak une honetan esparru sozio-ekonomikoan sortuta dauden sareen barne begirada hori kanpo begirada, garapen klabea alegia, sartzeko ekar dezake, eta ondorioz planen beraien berrikuntza ere bai.

Bilgune hauen bultzada behetik gora ikusten dugu, ez baitago une honetan euskararen lurralde guztian horrelakorik, eta bultzada hori gainera udaletatik eta mankomunitateetatik hasteko modua dago. Horrek herrien arteko lotura, eta ondorioz, toki garapena areagotzea ere ekar dezake. Izan ere, herri maila baino aproposagoa da eskualde esparrua, (herri hazien kasuan izan ezik) aktibitate sektorialean konbergentzia topatzeko herri bakanak gutxitxo izango baitira. Eskualdeak beraiek ere kasu batzuetan gutxitxo izaten dira sektore topaketarako.

6. ERAGILEEN PAPER A TOKI ETA HIZKUNTZA GARAPENEAN

I

Euskarak toki garapenean izan beharreko lekuaz eta toki garapenari egiten dion ekarpenaz jarduterakoan hainbat eragile aipatu ditugu funtsezko modura. Honela, zer esanik ez, eragile sozio-ekonomikoak ditugu tarteko, enpresak, sindikatuak eta ekintzaileak alegia.

Enpresak

Enpresek, lehendik ere aipatu bezala, gaur egun hizkuntzaren normalizazioan partaide izateko behar gutxi sentitu izan dute ez bada barne eskari bati erantzun behar izan diotelako ala araubidezko kanpo eskari bati erantzun behar izan diotelako —batez ere kontsumo arloan—. Zentzu honetan beraien ekoizpenari eta etekinari dagozkionak aztertuta,

Orain arte esandakotik nabaritzen da toki garapen estrategia baten baitan kokatu behar dela euskararen normalizazioa, eta ondorioz, baita erabilera planena ere.

euren enpresa euskalduntzeak izan dezakeen etekina kalkulatzekoan garbi eduki dute —edo hala dirudi behintzat— eskatzen duen inbertsioak ez duela behar besteko etekinik ematen.

Bestalde, enpresa jardunean eta gestioan aldaketa asko ez dira epe laburreko etekinari begira eginak, baina epe laburrekoak garrantzia handiagoa hartzen du, eta epe ertain-luzekoek berriz estimulu handiagoa behar dute. Azken hauen artean kokatzen dira euskararen erabilera areagotzeko egitasmoak. Estimulu hau normalean erakunde publikoek egindakoa izan ohi da.

Sindikatuak

Eragile sozio-ekonomikoen artean sindikatuak jarrita, sindikatuek, eta batez ere eremu euskaldunetan, bultzatu izan dituzte sakonera handiagoko edo txikiagoko prozesuak, baina hauen kasuan baita ere beraien jarduera eremu klasikotik, langileen interesen defentsatik, irteteko zailtasunak erakutsi dituzte, izan ere, eta batez ere gaur egun bizi dugun egoeran, nahiko lan edukitzen ari dira beraien funtsezko zeregina duten arlo horretan.

Erakunde publikoak

Eragile ekonomikoen jarduera falta hau —zenbaiten kasuan, interes falta hau— hau nolabait konpentsatzeko erakunde publikoen estimulua eta jarduna ezinbestekoa dela aipatu izan dugu. Euskal garapenaren etorkizuneko gakoak orain arteko hainbat gabezia zuzentzean oinarritu behar dira, besteak beste gure enpresen garapen teknologikoa eta langileen prestakuntza hobetzea. Gizartearentzat kohesionatzaileak diren gakoak zaindu behar dira beraz, tartean identitate konpartitu bat sortzeko lagungarri izan daitezkeenak, euskararen erabileraren inguruko egitasmoak esate baterako, leku batzuetan hizkuntza bera identitate ezaugarri modura hartuta (euskaldun dentsitate handia dagoen lekuetan), baita prozesuak berak daukan indar motibatzailea presente edukita. Izan ere, garapen kualitatibo horretan oso lagungarri izan baitaitezke.

Lidergo politikoa toki garapenean beharrezkoa den osagaia izanda, euskararen berreskurapenak, beste zenbait alderdik bezala, duen potentziala ez du kontutan izan lidergo honek, eta bada garaia aintzates-teko. Esan dugu prozesuak izan dezakeen epe laburreko erakarmen urria konpentsatzeko botere publikoen esku hartzea beharrezko ikusten dugula.

Trebakuntza eragileak

Langileen kualifikazioan eta prestakuntzan diharduten eragileen kasuan ere (trebakuntza profesionala, lanbide heziketa, unibertsitateak...), dela eskaintzarik egon ez delako, dela horretarako behar besteko bultzada publikorik izan ez delako, edo beste hainbat arrazoiengatik, ez dute ezagutza berria sortzeko gauza diren zikloak eta ikastaroak planteatzekoan ezagutza hau euskaraz jasotzeko modurik ezarri. Kasu hauetan gainera entitate publikoek askotan zentro hauen jabetzan eta zuzendaritzan partaide dira, eta aukera dute arlo honetarako politika bat diseinatu eta martxan jartzeko.

Normalizazioan diharduten enpresak³

Eragile sozio-ekonomiko izanda ere, normalizazioan eskarmentua duten hizkuntza aholkularitza enpresak bereziki aipatu beharrekoak dira eragileen zerrendatze honetan.

Herri eta eskualde guztiek ez dituzte jarduera ekonomikoa duten hizkuntza aholkularitza enpresak, baina badaudenetan hizkuntzaren berreskurapenarekin lotutako prozesuen ahalmena prozesu estrategikoan txertatzeko gauza diren eragileak dira, eta garapen kualitatiborako ezagutza handia txertatzea izan daiteke berauen ekarpena.

Hauetz gain enpreson ordezkartzadun erakundeak ere gehitu beharko dira. Azken hauen lana eta eskarmentua ez dira, lan munduko ekintzara jotakoan, behar bezala baloratu, eta berauen ekarpenak ez du eduki beharko lukeen adinako pisurik izan. Horrek noski, prozesuarengan eragin negatiboa izan du, eta oztopatu egin du ekimenak gehiago hedatzea.

Eta euskalgintza zer?

Lan munduan jardun duten enpresen ikuspegitik toki garapenarena ez da esparru ezaguna, eta ziurrenera ez da ezta estrategikotzat jotzen oro har. Baina aipatu dugu gure ustez ekonomia garapen klabeetan ez kokatzea, eta batez ere toki garapenak elementu kohesionatzaile eta kulturei ematen dien garrantziarengatik, arlo honetarako proposamenik ez lantzeak edo posizioerik ez hartzeak orain arte lan munduan egin den ahaleginari kalte handia egin diezaiokeela.

Honela bada, gai honetan entitate publikoek izan dezaketen interesarekin batera, interesik handiena izan dezakeen eragilea da euskalgintzarena. Horretarako edonola ere nolabaiteko konbergentzia bat bilatu behar du, batetik barnean, eta bestetik berauen inguruan.

Barne konbergentzia diogu euskalgintzako erakundeek gauza izan behar dutelako gai honetan helburuak partekatzen hasteko, indarrak

Jauzi bat behar da beraz. Euskalgintza une honetan euskaldungoari begira dago batez ere, eta are gehiago, euskaraz ondo bizi daitekeen euskaldungoari, eta Euskal Herrian gutxiengoa izanda, oso zaila da bere helburu politikoak lortzea modu horretan.

batzen hasi aurreko pausoa. Euskalgintzaren baitan sartzen diren erakundeek zeresan eta zer eman handia izan dezakete epe ertain eta luzeko prozesuak baitira toki garapen kualitatiboarenak. Honelako prozesuetan euskalgintzako erakundeek zein euskalgintzatik gertu daudenek aise ikus dezakete euren burua, hezkuntza eta komunikazio arloetan baitihardute, eta hezkuntza eta komunikazioa dira kohesio sozialerako tresna garrantzitsuak.

Kanpo konbergentzia bilatzekotan zeinekin erabaki behar, eta hemen sartzen dira enpresak, sindikatuak eta tokiko botere publikoak. Kasu bakoitzean zein izan daitekeen lagungarriena aztertu beharko da, baina euskalgintzak ere jarduera modua berritzea beharrezkoa izango du. Hau da, ez da hainbeste hizkuntzari begira egon behar. Begiratu beharko dio baita ere eskualdeko (tokiko) ongizateari eta garapen kualitatiboari (kohesioari) laguntzen dieten faktoreei, hauen artean dago-eta hizkuntza. Modu honetan garapen proiektuetan beharrezko mintzakide bihurtuko da euskararen normalizazioan diharduen erakundea edo erakunde multzoa⁴.

Jauzi bat behar da beraz. Euskalgintza une honetan euskaldungoari begira dago batez ere, eta are gehiago, euskaraz ondo bizi daitekeen euskaldungoari, eta Euskal Herrian gutxiengoa izanda, oso zaila da bere helburu politikoak lortzea modu horretan. Beharrezkoa da beraz euskararen iraupena bermatuko duen dinamika politikoak sortzeko mobilizazio sozialerako ahalmena handitzea, eta horretarako une honetan gizartean nahikunde unibertsaltzat har daitezkeen kontzeptuetara inguratzea, berrietatik proposamenak eginaz. Ekonomia arloari dagokionez kontzeptu hauek garapen kualitatibotik eratortzen direnak izan daitezke: berdintasuna, gizarte kohesioa, iraunkortasuna, ezagutza eta abar.

Zaila dela ez dago zalantzarik, urte askoko inertziak eta lan ikaragarria zama galanta dira. Ez dugu esan nahi euskalgintzaren lana hutsala izan denik. Oso urrun dago adierazi nahi duguna baieztapen horretatik. Egia baita lan handia egin dela eta emaitzak eman dituela lan horrek, baina jauzi kualitatiborik ez da gertatu, ez behintzat euskara planen lehen loraldia eta gero.

Finean, aipatu ditugun kontzeptuok zero modura hartuta toki garapenaren bidez euskararen berreskurapenean lur eman dakieke kontzeptuoi.

Elkarreragina

Toki garapenarekin zerikusia duen prozesu estrategikorako eragileak dira aurkeztu ditugunak. Hizkuntza normalizazioa bilduko duen pro-

zesuak ohiko eragileez gain (politikoak, hezkuntza eta trebakuntzari lotuak, jarduera ekonomikoan dihardutenak, sozialak...), euskalgintza-koak –enpresa zein elkarte- biltzea planteatzen da berezitasun moduan beraz, batik bat ekarpen handia egin dezaketelako toki garapen kualitatiboan gizartearentzat elementu kohesionatzaile baten gaineko beraien ezagutza dela-eta, elementu horrek honelako hausnarketetan orain arte ez baitu izan lekurik.

Aipatzen ari garen erakunde hauek gainera, profesionalizazio maila altua dute, azken hamarkada honetan planifikazio estrategikoaren nondik norakoetan trebatu egin dira, dela euskalgintzaren esparru hutsean, dela hedabideen esparruan, edo oro har eskualdeetako hizkuntza egoeraren inguruko hausnarketetan. Beraz honelako prozesuak ez zaizkie arrotz.

Prozesu hauetan sortzen diren helburu estrategiko, ildo, estrategia eta abarrak toki garapenaren ikuspegitik oso garrantzitsuak dira, baina hauek bezain garrantzitsuak dira toki garapenaren ikuspegitik prozesuak berak sortzen dituen harremanak. Azkenean harreman hauek izango dira eskualde mailako sareak sortzerakoan ernamuin modura funtzionatuko dutenak.

7. ONDORIOAK ETA LABURPENA

I

— Toki garapen kuantitatiboa baino, lurralde bateko ezaugarriak aintzat hartu, mantendu eta zaintzearen alde egiten du toki garapen kualitatiboak. Gizartearentzat indar kohesionatzailea duten ezaugarriekin bat egiten du, eta hauen artean hizkuntzaren berreskurapen prozesuak logikan pisu esanguratsua du.

— Toki garapenean hizkuntzaren berreskurapenak balio kohesionatzailea du komunitate identitatea sortzeko osagai garrantzitsua delako, bai berez, baita berreskurapen prozesua partekatzeagatik ere.

— Orain arte euskararen normalizaziorako ahalegina egin duten enpresek bi gabezia eduki dituzte:

- Hizkuntza ez dute komunitatearekiko eta lurraldearekiko aipatu berri dugun proiektzio horren arabera hartu
- Kontsumora edo hezkuntzara bideratuta ez dauden enpresek barne gai modura ikusi dute, eta horrela operatibizatu dute gainera

— Gabezia hauek gainditzeko beharrezkoa da oinarri lokalean edo eskualdean enpresen arteko sareak aprobetxatzea, eta sare hauetan hizkuntza normalizazioa ere txertatzea garapenerako faktore modura. Enpresen artetik sare eta elkarguneen sakoneran etekina ateratzeko

Toki garapen kuantitatiboa baino, lurralde bateko ezaugarriak aintzat hartu, mantendu eta zaintzearen alde egiten du toki garapen kualitatiboak. Gizartearentzat indar kohesionatzailea duten ezaugarriekin bat egiten du, eta hauen artean hizkuntzaren berreskurapen prozesuak logikan pisu esanguratsua du.

Euskararen berreskurapen prozesuek toki garapen estrategiak elika ditzakete, batez ere identitate sorreran duten garrantziari esker. Aldi berean, toki garapen estrategiek euskararen berreskurapen prozesuari ekarpen handia egiten diote sozio-ekonomia alorrean egun duen muga gainditzeko bide berri bat zabaltzen duelako. Elkarrentzako mesede eta elkarren behar.

adinako ahalegina egiteko eskatzea asko eskatzea litzateke. Horregatik da garrantzitsua bultzada politikoa.

— Euskararen berreskurapen prozesuek toki garapen estrategiak elika ditzakete, batez ere identitate sorreran duten garrantziari esker. Aldi berean, toki garapen estrategiek euskararen berreskurapen prozesuari ekarpen handia egiten diote sozio-ekonomia alorrean egun duen muga gainditzeko bide berri bat zabaltzen dutelako. Elkarrentzako mesede eta elkarren behar.

— Beharrezkoa da halaber arlo sozio-ekonomikoan euskararen erabilerak hausnarketa estrategikorako espazioa izatea gainerako toki garapeneko elementuek bezala eta elementuokin elkarreaginean: azpiegiturak, ekipamendu teknologikoak, trebakuntza, balio kateak, enplegua...

— Euskararen berreskurapena bultzatzeak epe laburreko etekinik ez badu ematen ere —salbuespenak salbuespen—, epe ertain eta luzera eman dezake. Enpresetan epe ertain eta luzean pentsatzeko zailtasunak daudenez, bultzada politikoa, erakundeena alegia beharrezkoa da.

— Toki erakundeen zeregina zentzu honetan zuzeneko diru-laguntzak alde batera utzi gabe, ekonomian egiten duten zeregin bera da: prozesuak erraztu, eta interes orokorra helburu batzuetara bidera dadin (kasu honetan hizkuntzaren berreskurapenera) bitartekoak jarri.

— Bultzada honi behetik gora ekitea iruditzen zaigu egokiena, udaletatik eta mankomunitateetatik abiatuta hain zuzen er.

— Prozesuan gainera eragile guztiak hartu behar dira kontutan: enpresak, trebakuntza zentroak, sindikatuak, entitate publikoak, eta zer esanik ez, euskalgintza. ●

OHARRAK

1. Euskara planaren abiatze diseinua ere diruz laguntzen da, baina kopuruetan anekdotikoa da lerro hau.
2. Eralanek babes publikoa izan du, proiektuaren fase ezberdinetan Gipuzkoako eta Bizkaiko Foru Aldundiek parte hartu baitute
3. Batez ere euskara planak dituzten enpresei buruz ari gara
4. Euskara taldea izan daiteke, edo ikastetxeen taldea, edo euskalgintzako eragile ezberdinen taldea... Ez da zertan erakunde bakarra izan, baina euskararen normalizazioarekiko jarrera proaktiboa edukitzea beharrezkoa da.

BIBLIOGRAFIA

- ALVAREZ ENPARANTZA, J.L. Txillardegi, (2004). *Euskararen aldeko borrokan. Euskalgintza eta euskalaritzako idazlan hautatuak (1956-1983)*, Donostia: Elkarlanean, Eztabaida 7.
- BENGOETXEA MUXIKA, X. (2012). "Arnasguneak. Ezaugarriak. Zenbait arnasguneren egoeraren behaketa". *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 85:75-118.
- ELORTZA, I. (2012). "Auzolana euskarazko kulturgintzaren ardatz". *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 83:149-153.
- ESNAOLA, I. (2001). "Hizkuntzaren erabilera pribatua, interbentzioaren mugak non jarri?" *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 41: 45-49.
- GARDNER, N. (2005). "Lan mundua: egoera eta asmoak". *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 57:31-45.
- INTXAUSTI, J. (1998). "Talde euskaltzaleen garapen historikoaz (XVI-XX. mendea)" in Intxausti, J. (ed.) *Hizkuntzen aldeko mugimendu sozialak*. Donostiako Udako XII. Ikastaroak (1993), [Bilbo]: UPV-EHU, 17-56.
- TORREALDAI, J.M. (1977). *Euskal idazleak, gaur. Historia social de la lengua y literatura vascas*, Oñati (Arantzazu): Jakin.
- ZELAIA, A. eta beste batzuk. (2012). *Tokiko Garapen Ekonomikoa*. Arrasate. Ekai Center.